




LAB lehen indarra Euskal Telebistan

Miramonen lehen indarra, eta Bilbon ere izateko, 6 boto eskas.

- Balorazioa egokiago egiteko datuak orokortasunean aztertzea komeni da. Batetik LAB arlo publikoan orokorrean izaten ari den gorakada, eta ETB barruan beste sindikatuen emaitzak kontutan hartuz.
- Balorazio politikoa egiterakoan, langileek babestu dute LABen koherentzia, zuzendaritza berriaren eta aurrekoen jokabideak salatzerakoan. Babes honek etxetik kanpoko eragile askori min emango badie ere, euskal jendarte eta langileriari ilusioa piztuko diela ziur gaude. Garbi gelditzen da zeintzuk diren ETBko langileek babesten dituzten tesiak, modu honetan zuzendaritza eta hainbat alderdi politikei ohartarazpen edo "aperzibimendu" zorrotza eginez. Beste jakinarazpen bat luzatu nahi diegu azken asteotan egindako borrokak hauteskunde sindikalen testuingurura mugatu duten eragileei: ekinean jarraitzen dugula, eta laster ikusiko da hainbat emaitza.
- Ikuspegi sindikaletik baloratzerakoan, bai Bilbon zein Miramonen, langileek LABen lana eta koherentziari babesa eman diotela. Soilik batzordeak ordezkatzen dituen langileak kontutan hartuko bagenitu, beste emaitza batzuk egongo ziren. Ez da zorte kontua izan, baizik eta bakoitzak bere uztak jaso dugula.
- Orain arte egindakoak eta hartutako konpromiso eta erronka guztiak aurrera eramateko indar handia jaso dugu. Orain arte oso ekipo ona izan bagara ere, hemendik aurrera oso ekipo ona eta handia ere. Halere horrek ez du esan nahi lan guztiaren zama LABen gainean gelditu behar denik. Izan ere Sindikatu gehiago badago ere, eta ekintza batasun sindikalaren garrantzian sinisten jarraitzen dugu; sindikatuok tresna baino ez gara, langile guztiok gara arduradun eta borrokatu behar dugunok. Laster erronka berriak etorriko dira, bai ETBko langileentzat zein euskal herri osokoentzat.



Zorionak eta eskerrik asko langile guztioi, lehen pertsonan. Animo!

